



ORDU ALDAKETA

Bihar, larunbatetik igandera arteko gauetan, ordua aldatuko da: goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira



4 UDALTOP

Topaketak laugarren urtez burutu dira herrian

Gaur emango zaie bukaera Udaltop topaketei. Goizez izango dira saioak eta bertan parte hartu dute ia 200 profesionalak. Antolatzaileak oso pozik azaldu dira parte hartzaile kopurua uste baino handiagoa izan delako eta egitarauak hauen artean izan duen arrakastarekin.



# Fortunata Zuaznabarren 100 urteak

Familia eta lagunek ospakizun handia antolatu zuten asteazkenean bere omenez

100 urtetara iristea ez da erraza. Asteazkenean Fortunata Zuaznabar lasarte-oriatarra aparteko talde honetan sartu zen. Fortunatak senide eta lagunekin ospatu zuen bere urtebetetzea. Bere bizilagunek ere omenalditxoak egin nahi izan zioten hain egun berezian. Fortunata pozik azaldu zen hainbeste opari eta lagunen artean.



Asteazkenean, senide guztiak bere etxean batu eta Fortunatak ederki ospatu zuen bere 100. urtebetetzea.

TXEMA VALLES

Fortunata Zuaznabar herritarrak asteazkenean 100 urte bete zituen eta hain egun berezian festa handia antolatu zioten senide eta lagunek.

Eguerdiaren jauntzea hartu ostean, familiarekin bazkari handia izan zuen. Ekitaldi xumean musika eta hitza izan ziren nagusi. Bere ohoretz, herri osoan entzun ahal izan ziren sei suziri bota ziren.

Arratsaldean, berriz, auzoko bizilagunen eta Lasarte-Oriako Udalaren eskutik omenaldia jaso zuen.

Haren suhiak Bixente Beltranek euskal doinuak eskaini zituen eta Antton Garinek Fortunatari zuzendutako bertsoak bota zituen.

Udaltetik Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak lore sorta bat jaso zuen Fortunatak eta Zabaleta auzoko bizilagunen eskutik, berriz, orkideak.

Familiako kideek esan digutenez, bere senide guztiak urte askotako bizitza eduki bazuten ere, bera da

lehendabizikoa 100 urtera iritsi dena.

Fortunataren bizia

Fortunata Zuaznabar Sausta baserria zenean jaioa da, egun Sasoea eskola kokatuta dagoen eremuan zegoen baserrian hain zuzen.

Felix Telleria Olaranekin ezkondu zen hau preso politikoaren langileen batailoian egon ostean. Gainera, Felix bere senarra Luzuriagan, fundizioan lan egin zuen, eta horretan ari zela, 1948. urtean, artean laugarren semea sabelean zuela, txatarra artean zegoen gerrako bonba batek eztanda eginda hil zen.

Bere baratza eta famili osoaren laguntzaz, lau seme-alabak aurrera atera behar izan zituen.



Zabaletako Auzolan elkartearen izenean Pili Kastresanak orkideak oparitu zitzion.

grebaorokorra  
m29

inposaketaren aurrean,  
**BURUJABETZA!**

Martxoak 23an LASARTEN

Manifestazioa

19:00etan Okendo plazatik

LAB

## Neure kabuz



## Mailu Arruti

### Ganbara astindu

Krisia krisia eta krisia besterik ez dugu entzuten azken aldian, eta dena txarrerako. Ogi gogorari hortzak zorrotz! Esaten da horrelakoetan. Krisi honek ere izango du ba ezer onik ez?

Ez da denbora asko, prentsan artikulu baten bidez, DIY mugimenduaren berri izan nuela. Inglesezko izenaren siglak dira (Do it yourself). Egin ezazu zerrorek alegia.

Interneera jo eta oso gauza polita, positiboa eta erakargarria topatu nuen. Nonbait DIY mugimendua punkien garaikoa da.

Baina orain gehienoi baliabideak urritu zaizkigun honetan, berriz ere indarrean jarri ote den ba...

Gauza interesgarriak aurkitu ditut. Esate baterako autoak konpontzen dituzten tailer batean, filtroen aldaketak eta gauza ximpleak egiteko, erreminta uzten dizute, bertako langileei galdetu diezaiekezu laguntza behar izan ez gero, errekanbioak saltzen dizkizute, baina eskulana zerorrek jartzen duzu.

Madriren ireki omen dute "kafe costura" deitzen den lokal bat. Galtza barrenak egin behar dituzula, edo kurtina bat josi, edo al dakit nik zer lantxo, ba toki horretara joan, lana zein den azaldu, eta bertako persona batek laguntza eskainiko dizu, josteko makina orduka alokatu-

ko dizu eta bitartean kafetxo bat har daitenke.

Ez al da bitxia? ez al da polita? ez al da interesgarria?

Berehala etorri zitzaizkidan iparraldean hain estimatuak diren ganbara hustuketak. Bigarren eskuko ia ezer ez dugu guk erabiltzen. (Autoa, etxea edo horrelakoren bat gehienez)

Askotan komentatu izan dugu europar udatiarrak zer nolako kotxeak, karanak, autokarabanak, txalupak ea. Ekartzen dituzten. Beraien bizi mailaren seinale eta aldi berean beraien eta beraien haurrek zer nolako bizikleta zahar eta herdoilduak erabiltzen dituzten. Guk ez genuke horrelakorik egingo gure haurrek bizikleta berriak dituzte. Nahiz eta ahalaria ekonomiko handiagoa izan, berrerabilpenaren kontzientzia ere guk baino handiagoa dute.

Erabili eta bota. Horretara ohitu gara

azken aldian baina zerbait pentsatzeko garaia iritsi zaigu. "Zaborrez" lepo gaude. Bazter guztiak trastez, jostailuz, erremintaz, arropaz josita dauzkagu. Guk nahi/behar ez duguna agian besta batek gustura erabiliko du. Eta agian guk ere zerbait interesgarria topa dezakegu.

Hasi dira bigarren eskuko azokak, trukea sustatzen dutenak ea. Lehen pausotxoak.

Ohituta gaude asko pentsatu gabe joan eta erosi, joan eta erosi...zokora bota, utzi, zakarretara, edo erdiko pausua, ganbara igo!

Beharrak bultzatuta besterik ez bada ere, erosi aurretik ganbara astindu beharko genuke. Eta bi zentzutan diot. Lepo gainean duguna astintzen behingon berrerabilpena sustatzeko eta teiltupean dugun ganbara horretara buelta gehiago egin eta traste zaharrei bizi berria eman.

## Azoka txikia

## Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oria erdialdean. 657 796 624
- Estudio bat alokatzen da Vieux-Boucaux-en Aste Santurako edo Pazko asterako. Prezio onean . Tel.: 688 667982
- 116m2-ko aparteko pisua salgai, lingo de Loyola, 2an. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute. Sartze-ko prest. 330.000eur. Harremanetarako zenbakia, 639 738 413.

## Salerosketak

- Bigarren eskuko gela makina eta ontzi garbigailu industrialak salgai. Biak 600euro. Maialen 663 447 332.
- Bizkientzako aukia saltzen da. Egoera onean. Harremanetarako zenbakia, 658 743 763.

## Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen etxeko lanak, pertsona helduak edo haurrak zaindu. Interna moduan edo orduka lan egiteko. Harremanetarako 609 952 350, Sandra telefono zenbakira deitu.
- Emakume euskalduna, arduratsua, eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko haurrak zaintzen, garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko: 677 356413
- Emakumea eskaintzen da haur edo helduak zaintzeko. Geriatria laguntzaile tituluduna. Sandra 677188189
- Gizona bat eskaintzen da, helduak zaindu, garbiketarako egin... Harremanetarako, 638 096 411.

## Zorion agurrak



Nahia

Zorionak! Hamar muxu ematen dizkizugu. Ondo pasa sorgina! Aita, ama eta Alexen partetik.



Alaitz

Zorionak zure hamabigarren urtebetetzean eta muxu handi bat familiaren partetik.



Alex

Zorionak! Lasarteko sukaldari hoberenari.



Imanol

Zorionak herriko bakera sexienari. 33 pistolazo handi. Ekaitz, Amaieur eta Aizkoaitz



Asier

Zazpi muxu handi aita-txo, amatxo eta Iratiren partetik



Noelia eta Leire

A ze sustoa! Urteak betetzea ez da hainbestetako. Bihar ospatzeko aldatu aurpegi hori!



CEPI

Zorionak Jose Cristian! Ondo pasa zure zorion egunean. Koadrilaren partetik



Andrea eta Saray

Zorionak zuen bigarren eta bostgarren urtebetetzean. Ondo pasa familiaren partetik!



Mertxe

Zorionak english student! Bazkaria zure kontu. Familiaren partetik ondo pasa.



Nathaly

Zorionak gurasoen partetik gure sorginarentzat! Lau muxu handi!

## Heriotzak Jaiotzak

## Jaiotza

- Unax Nogales Garcia de Andoin, martxoaren 21ean.
- Aiala Jimenez Peciña, martxoaren 18an.
- Hodei Ocariz Martin, martxoaren 13an.

## Heriotza

- Saturnino Perez Dieguez, martxoaren 19an, 76 urte zituela.
- Maria Beloqui Olló, martxoaren 16an, 90 urte zituela.

## Farmazia Goardiak

## EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 23  
Rodríguez, Nagusia 42 atzea 943 361774
- Larunbata, 24  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Igandea, 25  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Astelehena, 26  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteartea, 27  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteazkena, 28  
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Osteguna, 29  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chucla, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAKO Kultura eta Euskara Departamendua

OINATZ TALDEA

# Kobazuloak eta sorginak

Irakurketa positiboa egin du Oinatz taldeak eta hurrengo irteera prestatzen ari da, Lasarte-Oriako mugak

**Oinatz taldea Sara eta Zugarramurdi inguruetan izan zen martxoaren 11an. Hainbat herritar izan ziren haiekin kobazulo eta sorginen istorioak ezagutu zituztenak. Pozik agertu dira irteerak izandako harreragatik.**

**G**iro ezin hobean, lehenengo martxoaren 11ean, Oinatz taldeko lagunek 84 herritarrekin batera Sara eta Zugarramurdi aldera irteera egin zuten.

Antolatzaileak harrিতuta geratu ziren irteerak izandako harrerarekin. "Haur eta guraso asko etorri ziren, ikaste-txeetara egindako deialdiari esker" azaldu digute.

## Sorginak eta kobazuloak

Herritarren taldea Lasarte-Oriatik abiatu eta Zugarramurdirako bidea egin zuen.

Bertan Sarako kobazuloetara dagoen mendi bidea hartu eta oinez ibilaldia egin zuten. Sara, Zugarramurdi, Urdazubi eta Ainhoak osatzen duten Xareta eskualdeko mendien bista ederra izan zuten honetan.

Saroko kobazuloan, berriz, leizearen eraketa geografikoa eta aztarna megalitikoak ikusi ahal izan zituzten berta-



Saroko leizera sartu baino lehen talde argazkia egin zuten guztiek. ARANTZA ARTOLA

tik bertara. Era beran, Euskal Herriko sinesmenei eta aita Jose Migel Barandiaran-en lanari buruz ere ikasi zuten zerbait.

Arratsaldean, autobusa hartu eta Zugarramurdira, sorginen herrira bueltatu ziren.

Honetan leizeak bisitatu zituzten. Sorginen leizeak lurrazaleko gune karstiko ikaragarria dira.

Gune honen izena, antzina leizearen zenbait salatan egiten ziren ospakizun paganoetatik hartua da. 1609tik 1614ra bitartean Inkisizioak bertan burututako prozesuaren arabera, Zugarramurdi sorginkeria egiten zela erakusten zuten ospakizun hauek.

Honela, sorginen munduan pixka bat murgildu oostean, sorginen museora egin

zuten bisita. Honetan, 1610eko inkisizio-prozesuan Zugarramurdi eta inguruetan XVII. mendean gertatutakoak berri izan zuten.

Azkenik, herria ezagutzeko aukera ere izan zuten.

## Lasarte-Oriako mugak

Gauzak honela, Oinatz taldeko kideek irakurketa oso positiboa egin dute. "Giro oso ona egon zen eta oso gustura ibili ziren guztiak bai haur, baita gurasoak ere," adierazi digute.

Dagoeneko hurrengo irteera prestatzen ari direla aurreratu digute. "Iaz arrakasta izan zuen eta berriro egitea erabaki genuen". Txangoa Lasarte-Oriako mugak eta herriko historiari buruzkoa izango da.



## GIZARTE ZERBITZUAK

### Gizarte Zerbitzuen lana erakusten

Lasarte-Oriako Udaleko gizarte zerbitzuek astelehenean hitzaldia eskiani zuten Biyak Bat erretiratu elkarteetan. Maite Higueros Gizarte Zerbitzuetako arduraduna eta Itsaso teknikaria izan ziren bertan gizarte zerbitzuen lana azaltzen.

Lehen mailako arretarako zerbitzu honetan egiten den informazio, orientazio eta esku hartzei buruz mintzatu ziren. Zehazki adineko pertsonen eta haien famili edo zaintzaileei zuzendutako zerbitzuak azaldu zituzten: etxez etxeko laguntza zerbitzua, telelaguntza, laguntza teknikoak, eguneko zentroa, sendian programa, aldi baterako egonaldiak, laguntza ekonomikoak, etxebizitza komunitarioak eta adinduen egoitza besteak beste.

Hauek lortzeko behar diren eskakizunak ere aipatu zituzten eta herritarren galderei erantzun behar izan zieten, behin baino gehiagotan.

## BIYAK BAT ELKARTEA

### Lloret de Mar-era bidaiak

Biyak Bat Erretiratu elkarteak Costa Brava-ra eta zehazki Lloret de Mar-era hamahiru egunetako bidaiak antolatzen ditu, maiatzaren 22tik ekainaren 3ra.

Lau izarretako hotelean izango da egonaldia eta otordu eta txangoak prezioaren barne daudela azaldu dute.

Irteeraren prezioa elkarteak bazkideentzat 475 eurotako da eta bazkideak ez direnentzat, 527 eurokoa. Pertsona bakarrarentzako gela eskatzen duenak 180 euroko gehi karga ordaindu beharko du.

Informazio gehiago edo izena emateko Biyak Bateko egoitzeko bulegora hurbildu behar da, 10:30ak eta 12:30ak artean.

## ELIZBARRUTIA

### Arantzazura ibilaldia

Donostiako elizbarrutiak, urtero legez, Arantzazuko santutegira ibilaldia antolatu du. Martxoaren 31ean izango da aurten eta "Zorionekoak bakegileak" leloa izango du martxak.

Lasarte-Oriako parrokiek autobusa antolatu dute ibilaldian parte-hartu nahi duten herritarrentzat. Autobusa goizeko 7:45ean aterako da Zumaburu autobus geltokitik.

Ibilaldirako izena ematea martxoaren 27, 28 eta 29an egin ahalgo da San Pedro parrokiako bulego zaharrean, 19:00etatik 20:00etara. Prezioa 13 eurotako izango da.

## POLITIKA

### PSE-EEK buletin berria aurkeztu du

PSE-EEK sortu berri duen informazio buletina aurkeztu zuen astelehena goizean. Lasarte-Oriako Udaleko bozeramaleak, Jesus Zaballosek adierazi zuenez, kargu publikoen lana ez da bakarrik Udaleko bileratara joatea, baizik eta herritarrei horren berri ematea. Helburu horrekin sortu dute "Lasarte-Oria, mas de cerca" berri-papera.

Alderdi sozialistak bere web orrialdean azken hilabeteetan argitaratu dituzten albisten bilduma da. Guztien artean hiri-hondakinak jasotzeko 5, edukiontzien alde eta atez ateko biltzaile sistemaren aurka aurkeztutako proposamena nabarmendu du. Jesus Zaballosek kritikatu egin du Pablo Barrio alkateak ez diola proposamenaren onarpenaren berri eman Gipuzkoako Hondakin Partzuergoari.

Berri papera aurkezteaz gain, PSE-EEK gogor kritikatu zuen Herritarren Plataforma Bildurekin elkarlanean jarraitzen delako.



**Manifestazioaren aldeko atxikimenduak.** Lasarte-Oriako ezker abertzaleak asteazkenean egin zuen agerraldian bat egiten zuten Martxoak 29ko greba deialdiarekin eta herritarrek greban parte hartzea gonbidatu zituzten. Era berean, grebaren alde Buruntzaldeko LABek gaur egingo duen manifestaldiari bere atxikimendua adierazi zuten. Eta ezker abertzaleaz gain, Akelarre Gazte kolektiboak ere, herritarren txokoa atalean irakurri daitekeen bezala, bat egiten du ekimenarekin. Manifestazioa gaur arratsaldeko 19:00etan Okendo plazatik aterako da eta gure herriko kaleetatik barrena Euskal Herriaren burujabetza ekonomiko eta politikoa egoera honen irtenbide bezala aldarrikatuko du.

# Udaltop topaketa jendetsuak

► Udaltop topaketak laugarren urtez Manuel Lekuona kultur-etxean burutzen ari dira ► Hauetan bildu dira udaletako euskara alorreko ia 200 profesional euren lanaren inguruan hausnartzeko

Udaltop topaketak laugarren urtez egiten ari dira Manuel Lekuonan. Aurtengo gaia "Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo!" izan da, iazko parte hartzaileen artean hala aukeratuta. Topaketak espero baino jendetsuagoak izaten ari dira, ia 200 profesionalak eman dutelako izena honetan eta antolatzaileak pozik azaldu ziren erantzunarekin baita aurkeztutako egitarauarekin ere.

Maidier AZURMENDI

A tzo goizean egin zen topaketa hauen irekiera ekitaldi ofizialean parte hartu zuten Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak, Eusko Jaurlaritzako Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Zigor Etxebarria Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara zuzendari nagusiak, EUDEL-en ordezkarria Basauriko alkatea den Andoni Busquet eta Carlos Ruiz Kutzako ordezkariek.

Hauek hitza hartu eta halako topaketen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.

## Elkarlanaren garrantzia

Lehena hitz egiten Lourdes Auzmendi Hizkuntza Sailburuordeak azpimarratu nahi izan zuen, udaletako euskara zerbitzuen lanaz gain, euskararen normalizazio prozesuan aurrera egitea udaleko departamentu baita erakunde guztien lana, zeregina dela. Horrekin batera "euskara gizarteko eremu eta sektore guztietan erabiltzea bultzatu behar da" eta horren eredu esaterako, sarean euskarak hartu duen presentzia esanguratsua. Gainera topaketa honek elkarlanerako paradigma eskaintzen duela ikusita bere sailera iritsi daitezkeen proposamen berriak entzuteko beti prest agertuko direla azaldu nahi izan zuen.

Bere aldetik, Zigor Etxebarria, Aldunditik, beharrezkotzat jo zituen halako ekimenak erakunde guztien baitan euskarari dagokion gogoeta ezinbestekoa delako, "euskaraz lan egin behar da erakundeetan eta erakundeetatik, jarrera hori gizartean eragile izateko". EUDEL eta Kutzako ordezkariek ere ekimen hau babestearen garrantzia azaldu nahi izan zuten.

## Katalana eta Euskara

Bernat Joan I Mari Soziolinguista eta Katalan Filologian doktorea izan zen lehena bere ponentzia aurkeztzen. Katalunia eta katalanarekin egindako lana eredu hartuta,

hizkuntza gutxituek jarraitu beharreko bidearen inguruan aritu zen. "Autozentralizazio" ardatza izanda, "erakundeek bultzatu eta sustatu behar dute euskara eremu guztietara zabaltzea". Erakundeak eragile izanda, euskarak gizartean lekua izango duela.

Linguistak argi utzi nahi izan zuen hizkuntza politiken arloan ez dagoela formula magikorik, izan ere, herri edo komunitate bakoitzaren egoera oso desberdina izan daiteke eta leku batean arrakastatsua izan den politika aplikatuta ere, kontrako emaitzak eragin ditzakeela. "Ondo ezagutu behar da hiztun komunitate bakoitzaren ezaugarriak politika zehatzak aurrera eramateko garaian".

## Azoka

Atsendaldian topaketetako parte hartzaileek azoka eza gutzeko aukera izan zuten. Bertan euren euskara zerbitzuak erakutsi ahal izan zituzten Euskal Herriko hainbat txokotatik iritsitako elkarte eta enpresek.

Ondoren, Gotzon Egiaren txanda izan zen "Nola neurtu departamentuen hizkuntza-jarduna" hitzaldiarekin eta Iñaki Lasa Kontseilutik "Euskal Herriko udalen hizkuntza-politikaren ezaugarri nagusiak. 2006-2009" hausnarketa egin zuen.

Arratsaldean, udaletxe ezberdinetako praktika onak eza gutzeko aukera egon zen. Pasaiaiko udalarena lehenengo, Santurtzi eta Bermeorenak ondoren.

Azkeneko honek HUH-ZIK planteatutako liderren inguruko esperientzia pilotua burutu du eta honakoa nahi duten udaletara eramateko prest azaldu ziren sustatzaileak.

Gaurkoan goizez soilik izango dira hitzaldiak baita parte hartzaileek aukera izango dute elkarrekin hainbat ekimen burutzeko. Hauekin bukaera emango zaie herriko Udaltop topaketen laugarren edizio jendetsuari.



Kutzako ordezkarria, Zigor Etxebarria Aldunditik, Pablo Barrio, Lourdes Auzmendi sailburuordea eta Andoni Busquet EUDEL.

Bernat Joan I Mari Soziolinguista

## “Euskara ez da desagertuko”

Katalan Filologian doktorea eta soziolinguista. Europar Parlamentuko kidea izan zen eta Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikako Idazkari.

**Munduko hizkuntzak bi egoeretan daude, normalizazio egoeran batzuk eta desagertzearen besteak. Euskara eta katalana erdi bide batean kokatu dituzu. Zergatik?**

Irakasle batek esan bezala "Euskadi eta Espainia bi inpotentzien adibide da. Euskadirena euskararen normalizazio osoa oraindik lortu ez izanagatik eta estatutaren, euskal kultura eta hizkuntza ez onartzeagatik". Hau da, hemen ere da lortu Danimarkako eredura iristea eta haiek, estatuek ez du lortu hau Gaztela eta Leon bezala izatea. Horregatik diot katalana eta euskara erdi bide horretan daudela, inorena ez den lurraldean.

Duela 100 urte hizkuntza gehiago zeuden tentsio egoeran, gatazka linguistikoa eta guzti hauei erreparatu izan da bide bat edo bestea hartu dutela.

**Erdi bide honetatik batera edo bestera joko du euskarak?**

Hizkuntzen egoera dinamikoa da. Oraingo egoera hau ezin dut 50 urte barru imajinatu. Ez euskararekin ezta katalanarekin ere. Nire ustez orduko euskara euskal gizartearen hizkuntza izango da eta ez dakitenez ondo ulertuko dute. Erdi bide honetan ezin du

jarraitu, ez da gertatu halakorik.

**Baina zergatik bi bide hauek?**

Ez dago beste eredurik. Kontutan izan behar da jendeak hizkuntza ekonomiarako joera daukala, eguneroko ekintzak hizkuntza batekin lotzeko joera dugu, erabilgarria izango zaiguna nahi dugu. Horregatik euskara gizarteko esparru guztietan erabilgarri nahi dugu eta hori lortu behar da.

Kontutan izan behar da hizkuntza gutxituen aurkari direnek oztopoak jartzeko garaian erabilera eremuetan jarriko dituztela. Saiatuko dira hizkuntza hauek lekuri ez izatea administrazioan, eskuletan... Oraingo borroka horixe da, gure hizkuntza esparru guztietan erabilgarri nahi dugunon eta nahi ez dutenen arteko gatazka.

**Euskararen etorkizunari dagokionez baikorra zara.**

Guztiz baikorra naiz, katalana eta euskara ez dira desagertuko. Hau esatera ausartzen naiz bi joera oinarri hartuta. Batetik, gure hizkuntzen presentzia oso esanguratsua da sare sozial eta Interneten. Kontutan izanda gure hiztun kopurua, izugarria da gure lekua sarean, oso hiztun komunitate aktiboak ditugu.

Bestetik, euskal gizartearen piramide demografikoan argi ikusten da 15-20 urte bitartekoan daudela euskal hiztun gehienak. 40-50 urte-

koetan aldiz, gutxiengo nabarmena. Tendentzia ona da. Geroz eta gazteago orduan eta hiztun gehiago beraz, euskarak badu etorkizuna. Aipagarria da ere bade-la euskal gizartean pertsona talde bat, gaztelera hizkuntza bakarria izanda ere, euren seme-alabak eskolan D eredu matrikulatu dituztenak. Beraiek ez dakite baina etorkizuna euskaraz nahi dute seme-alabentzat.

**Zeintzuk dira prozesuan jarraitu beharreko urratsak?**

Erakunde eta gizarteak lan handia egin behar du legegintzaren esparruan batetik. Bestetik, norberak indibidualki "autozentratu" behar du. Norberak prozesuan egin dezakeenaz jabetu eta arduratu.

Guri dagokigu gure hizkuntza esparru guztietara eramatea eta bermatzen ez direnean, gure hizkuntza eskubideak aldarrikatzea. Denek halako jarrera aktiboa hartuta, menderaezinak izango gara.

**Euskal hiztun guztiek bide bera hartu behar dute.**

Gizarte kohesioa beste elementu garrantzitsu bat da normalizazio prozesuan. Kasu honetan erakundeek lan handia dute egiteko. Euren lortu behar dute gizarte bateratu bat. Erakundeek gizarte eredu erakargarri bat sortu behar dute eta gizarte eredu horretan euskarak behar du ezinbesteko elementu izan.

# Birziklapenaren “anai handia”

► “Olaiaren erronka” Sanmarko Mankomunitateak martxan jarritako azken kanpaina herrian izango da igandea bitartean ► Etxe ibiltari honetan Olaia eta Aitor bizi dira egunean 10 orduz

Olaia eta Aitor hilabete osoan zehar Gipuzkoako hainbat herritan biziko dira, 30 m<sup>2</sup>-ko apartamentu batean egunean 10 orduz. Dagoeneko euren etxe ibiltaria Donostian eta Pasai Antxon izan da. Sanmarko Mankomunitatea, Ecoembes eta ECOVIDRIO erakundeek antolatutako ekintza da eta Olaiaren erronka izena eman zaio Aitor behar bezala birziklatzen ikastea duelako gazteak helburu. Asteazkenean iritsi ziren Okendo plazara eta euren etxera gonbidatu gintuzten.

## Maidar AZURMENDI

Asteazkenean Okendo plazan bizi dira Olaia eta Aitor. Ekimen berritzaile hau dagoeneko ezaguna egin da besteak beste, kristalezko etxe honetan gertatzen den guztia ikus dezaketelako herritarrek. Horretaz gain, bi protagonisten elkarrizketak ere kanpotik entzun daitezke une oro eurek azaldu moduan.

“Hasieran beldur pixkat ematen zigen horrelako etxean bizitzea, jendeak egiten duguna ikuste momentu oro lotsatzen gintuen baina orain ohitu egin gara eta gustura ari gara esperientzia hau bizitzen”. Bi gazteek ez zuten elkar ezagutzen eta hasieratik pisu kide onak direla esan digute, “ondo moldatu gara hasieratik, Aitorrek ez zuen ezer birziklatzen eta hasi ginenean eztabaida gehiago izaten genituen baina orain berriz hobeto”. “Olaia oso jatorra da baina birziklatzearen kontuarekin oso astuna jartzen da batzuetan” azpimarratu nahi izan du Aitorrek “gainontzean egia da oso ondo moldatzen gara”.

## Herriko plazan bizitzen

Aitorri sukaldarian aritzea gustatzen zaio eta etxe ibiltari honetan tarreak hartu ditu besteak beste, magdalenak egiteko.

Errezeta Interneten kontsultatu eta hauek prestatzen aurkitu genituen Olaia eta Aitor gure bisitan. Gazteek

etxe honetan gustura sentitzen direla esan ziguten, “ziurrenik faltan botako dugu kanpaina bukatzean”. Bientzat esperientzia berria izan da, “hasieran proiektuaren berri eman zigutenean ezin genuen imajinatu ere egin horrela izango zenik, ez genuen erreferentziarik eta ondorioz, ezin irudikatu nola izango zen gure bizitza hemen”.

Biek ahalik eta bizitza normalena egiten saiatzen direla aitortu ziguten, erosketak egitera ateratzen dira eta bertan gosaldia, bazkaldia egiten dute, baita siesta bota ere. Dagoeneko jendeak kaletik birziklatzearen inguruan dituen zalantzak galdetzen dizkie eta hori pozgarria da, “zalantzak argitu nahi izanak ardura ere azaltzen du, kontzientziazatzen ari gara gure zaborren ardura izan behar dugula geroz eta hondakin gutxiago sortzeko ahaleginetan”.

## Erronka

Olaiaaren erronka izena eman zaio kanpainari Olaia Aitorri nola birziklatu irakatsi behar diolako. Horrekin batera, birziklatzearen gaineko informazio zabaldu eta ahalik eta hondakin gutxieng sortzea zein garrantzitsua den izango da herrian egon bitartean luzatuko duten mezua.

Gainera, gazteek Lasarte-Orian egingo duten egonaldi hainbat bisita jasoko



Asteazkenean sartu ziren Olaia eta Aitor Okendo plazan kokatuta dagoen euren etxe ibiltarian.

dituzte, “bisita oso interesgarriak izan ditugu orain arte eta pertsonalki oso aberasgarria da Aduriz sukaldaria edota Oscar Terol aktorea ezagutu eta haiekin solasaldia egin ahal izatea” azaldu zigen Aitorrek. DYA-ko lehendakaria den Jose Luis Artola lasarteoriarrarekin izan ziren solasean baita Arantza Artola DYAko kidearekin ere asteazken arratsaldean besteak beste.

Olaia eta Aitorrek idatziz kontatzen dituzte bere bizipenak [www.olaiarenerronka.net](http://www.olaiarenerronka.net) blogean. “Blogean eta sare sozialetan idazteaz ia gehienetan Olaia arduratzen da nik etxeko beste gauza batzuek egiten ditudan bitartean”.

Internautek zuzenean jarraitu ahal diote Olaiaren eta Aitorren bizitzari “kamarak daudela ahaztu egiten zaigu askotan, badakigu hor daudela baina gure egunerokoan sartuta erraz ahazten dituzu gezurra badirudi ere. Jarraitzaile asko ditugu dagoeneko”. Hauekin harremanetan jartzeko Facebook-en Olaia Erronka, Twitter-en Olaiaren



DYAko kideekin egin zuten solasaldia besteak beste.

erronka @retodeolaia, Youtube-ko kanalean elretodeolaia eta Flickr-en egin daitezke. Galderak posta elektronikoz bidal daitezke ere, olaiarenerronka@gmail.com helbidera.

## Hondakinak gutxitu

Proiektuaren helburu nagusia birziklatzeko kultura bultzatzea eta hondakinak eta ontziak ondo bereiztea sustatzea da. Izan ere, kanpaina honek, hondakinen gaikako bilketa du ardatz.

Horretarako, edozein etxetan sortzen diren zalantza eta egoerei buruzko aholku praktikoko emango dituzte protagonistek.

## Saria

Azkenik, aipatu birziklapen-kultura sustatzeko, Mankomunitateak lehiaketa baten bidez proiektuaren jarraipena egiten duten pertsonak saritu nahi dituela.

“Zuk nola egiten duzu birziklatzeko?” deitu diote lehiaketari eta herritarrek etxean hondakinak nola bereizten dituzten erakusten duen argazki bat bidali behar dute olaiarenerronka@gmail.com helbidera. Argazkia bidaltzen dutenen artean, Facebook-en “Atsegin dut” adierazpen gehien jasotzen dutenek Mugaritzen bi lagunentzako afaria irabaziko dute.

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak



**www.electricidadarregui.com**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA

Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Etxeko txorizoa

Basurde burua

Baserri pateak



**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

## PILOTA.-

Intzako nagusien bikotea Udaberri txapelketako finalerdietan da

Intza Kirol elkarteko nagusien bikotea Udaberri txapelketako finalaurrekoak jokatzen ari da. Lehengo astean, Eskoriatzan 22-19 irabazi zuen herriko bikoteak eta asteburu honetan Michelingo pilotalekuan izango dute itzuliko partida.

Joxe Felix Solano entrenatzaileak azaldu digenez, partida borrokatu izan zen eta pilotalekura egokitzeko arazoak izan zituzten hasieran, "motzagoa zen eta".

Larunbata honetan etxean jokatuko dute, "20 puntu egitea nahiko ditugu" aipatu digu. Hala ere, Intzako entrenatzaileak adierazi duenez, irabaztea espero dute.

Partida honetan Xabi Arteaga eta Mikel Eloia izan ziren bikote. "Lesioak direla medio, txapelketan zehar bikotea aldatzen joan da. Jon Peio Artetxe eta Aitor Aranburuk ere Mikel Elolarekin jokatuko dira txapelketan zehar", adierazi du Solanok.

Eta finalean, Zumaiaren aurka jokatzea aurreikusten dute. "Haiek ere lehengo partida irabazi dute eta bigarrenean ere horrela izango dela uste dugu".

## SQUASH.-

# Squash txapelketa soziala hasi da

## Maiatzaren 11era arte jokatuko da lehengo fasea kiroldegian

**Astelehenean jokatu ziren XXIV. Squash txapelketa sozialeko lehenengo partidak. Aurtengo edizioan hamazazpi parte hartzaile izan dira izena eman eta ekainerako finalerako borrokan sartu direnak. Azken bi urteetako irabazleak, Alberto Udabe eta Agustin Erkizia, ez dira lehian izango. Beraz, aurtengo txapelketa inoiz baino irekiagoa egongo da.**

## Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak antolatzen duen XXIV. Squash txapelketa soziala dagoeneko martxan da. Astelehenean hasiera eman zitzaion bi partidarekin eta ekainera bitartean astelehentik ostiralera norgehiagokak ikusteko aukera izango da kiroldegian.

Kirol zerbitzuak jakin arazi duenez, aurtengo edizioan 17 jokalarik parte hartuko dute txapelketan eta horien artean, ez daude azken bi urteetan finala jokatuko duen bikotea, Alberto Udabe eta Agustin Erkizia. Horregatik, aurreko urteetan ez bezala, aurtengo txapelketan finalerako txartela eskuratzeko lehia bizia izango da.

## Ligaska

Lehiaketa sistemari dagokionez, txapelketa hiru fasetan banatu dute antolatzaileek.

Lehenengo fasean, bi taldeetan banatu dira jokalariek, bata bederatzikoa eta bestea zortzikoa.

Hauek ligaska-sistema erabiliz lehiatuko dira. Itzuli bakarra egingo dute eta talde bakoitzeko lehenengo hirurak txapeladunen faserako sailkatuko dira.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, bigarren fasean jokatuko ahal izateko lehenengo faseko partida guztiak jokatuko behar dituzte.

## Finalak

Txapelketako bigarren fasean, bi lehiaketa desberdin izango dira, batetik txapeladunen



Astean zehar, kiroldegiko squash pistetan txapelketako lehenengo partidak jokatu dira.

fasea eta bestetik kontsolazioa.

Lehenengo fasean sailkatu diren sei jokalariek ekainera jokatuko den finalerako lehia zuzenean sartuko dira, txapeladunen fasean.

Sei partehartzailek haien artean ligaska jokatuko dute eta sailkapen honetako lehenengo biek txapelketako final handia jokatuko dute irabazteko lehenengo biek irabazteko.

Era berean, finaleko egu-

nean, hirugarren eta laugarren postuetako norgehiagoka izango da. Honetan, txapeladunen faseko hirugarren eta laugarren sailkatuak ikusi ahaliko dira aurrez aurre.

Bestalde, aipatu legez, kontsolazioa ere jokatuko da.

Honetan txapelketako gaitzetzeko hamaika jokalariek izango dira. Kanporaketa sistemaren bitartez, kontsolazioko finaleko bi jokalariek nortzuk diren erabakiko da.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 24  
**Michelin, 10:30ean**  
 Ostadar-Lagun Onak *Infantil txiki, kopa*  
**Michelin, 12:00etan**  
 Texas Lasartearra-Aizkorri Goierri *I. Kadetea, kopa*  
**Michelin, 13:30ean**  
 Ostadar-Vasconia *I. Kadetea, igoera*  
**Michelin, 15:30ean**  
 Ostadar-Hondarribia *Emakumezkoen erregionala, igoera*  
**Harane, Usurbil, 15:30ean**  
 Usurbil-Ostadar *Erregional Gorena*  
**Urnieta, 16:00etan**  
 Urnieta-Ostadar *I. Erregionala, igoera*  
**Michelin, 17:15ean**  
 Ostadar-Lagun Onak *Jubenilen Ohorezko maila, igoera*  
**Martutene, Donostia, 17:30ean**  
 Amara Berri-Texas Lasartearra *Erregional Gorena*  
**Asti-Txiki, Zarautz, 18:00etan**  
 Zarautz-Ostadar *Kadeteen Ohorezko maila, igoera*

Igandea 25

**Michelin, 10:00etan**  
 Ostadar-Idiazabal *I. Infantil, kopa*  
**Michelin, 11:30ean**  
 Texas Lasartearra-Beti Gazte *I. Erregionala, kopa*

Zubipe, Hernani, 18:30ean  
 Hernani-Ostadar *Kadeteen Ohorezko maila, kopa*

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 23  
**HERRIKO TXAPELKETA**  
**Areto-futboleko pista**  
**19:30ean**, Indaux-Dakara  
**20:20ean**, Trunoi-Los Tiburones Rojas  
**21:10ean**, Buenetxea-Izarra

Larunbata 24  
**HERRIKO TXAPELKETA**  
**Areto-futboleko pista**  
**09:10ean**, Ilargi-Viña del Mar  
**10:10ean**, Balerdi-El Bar de Mau  
**11:10ean**, ISU Leihok-Ayete  
**12:10ean**, Txindoki-Naiban  
**13:10ean**, El Punto-Orio kristaldegia  
**14:10ean**, Izkiñ-Illum  
**Kabiez kirolegia, Santurtzi, 16:45ean**  
 Mamarigako-ISU Leihok *Euskal Liga*  
**Kiroldegia, 17:30ean**  
 Burunzaldea K.T.Aldaz H.K.-  
 Durangoko Sasikoa *Nazional III. maila*

## PILOTA

Ostirala 23  
**Urnieta, 19:00etan**  
 Urnieta-Intza *Erengimendu txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak*

Larunbata 24  
 Michelingo pilotalekua, 16:00etan  
 Intza-Eskoriatza  
 Udaberri txapelketa, eskuz binaka *I. seniora finalerdia*

## SQUASH

Ostirala 23  
**Kiroldegia, 18:00etatik aurrera**  
 Javier Irimoto-Kinin Calvo  
 Iñaki Garcia-Raul Mateos

Astelehena 26  
**Kiroldegia, 18:00etatik aurrera**  
 Javier Serrano-Francisco Delgado  
 Iñaki Garcia-Fernando Montero

Asteartea 27  
**Kiroldegia, 18:00etatik aurrera**  
 Asier Munduate-Xabier Amiano

Asteazkena 28  
**Kiroldegia, 18:00etatik aurrera**  
 Aitor Tejero-Oswal Cañedo  
 Joaquin Peña-Juanjo Martin

## JUDO

Larunbata 24  
 Bekoerrotako kiroldegia, Lezo, 15:30ean  
 LOKEko Josu Olmos, Mario Garrido eta Asier Sagasti judoka gazteek 23 urte azpiko Euskadiko txapelketa.

## ATLETISMOA

Igandea 25  
**Antonio Elortza belodromoa, 9:00etan**  
 Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeke alebin, infantil eta kadete mailako gaztetxoek Atletiadan parte hartuko dute.  
**Hondarribia, 9:30ean**  
 Herriko korrikalari talde batek Donostia Hondarribia-Talaia bidea proban parte hartuko dute.

## GIMNASTIKA

Larunbata 24  
**Bergara, 10:00etan**  
 LOKEko gimnastek eskolarteko eta amateur txapelketako bigarren jardunaldia dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 24  
**Beasain, 11:00etan**  
 Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko kadeteek XXX Usurbur proban parte hartuko dute.  
**Antzuola, 16:00etan**  
 Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko jubentilek XXXVIII Uzarraga igoeran parte hartuko dute.  
**Zarautz, 16:30ean**  
 Bazpi txirrindulari eskolako infantilek Zarautzko saria proban parte hartuko dute.

Igandea 25  
**Biyak baten, 9:00etan**  
 Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Iraetara egingo du iteera.

## ERRUGBYA

Ostirala 23  
**Michelin, 19:30ean**  
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako gaztetxoek entrenamendua dute.

Larunbata 24  
**Zarautz, 11:00etan**  
 Beltzak Ostadar Jalai-La Unica *Infantil federatua*

Igandea 25  
**Zarautz, 10:30ean**  
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako eskolarteko infantilek Atletico San Sebastian eta La Unicarekin hiruko txapelketa jokatuko du.  
**Arsasate, 10:30ean**  
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako benjamin eta alebin mailako gaztetxoek topaketa dute.

## BOLO-JOKOA

Igandea 25  
**Altxa, 10:00etan eta 16:30ean**  
 Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Lehendakari txapelketako laugarren saioa dute.

## Agenda

Larunbata 24, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Oroimenaren arazoak

"Aitona Matias" haurrentzako txotxongilo emanaldiaz gozatzeko aukera. Noraren aitona ez da bere izenaz oroitzen. Aspaldi hasi zen memoria galtzen. Haren oroitzapenetan zehar egindako bidaia baten bidez, Nora hari laguntzeko zer egin dezakeen pentsatzen hasiko da. Hona, beraz, aitita eta bilobaren istorioa, oroitzeko beharraz, ikasteko gogoaz eta sortzeko ahalmenaz mintzo zaiguna. Sarrera online, 3 euro; leihatilan, 3,40 euro. Euskaraz.

### Astigarraga Antzerkia

**ASTIGARRAGAKO KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 25, 17:30ean**

Borobil antzerki taldeak "Ali Baba eta 40 lapurrak" lana eskainiko du. Familia osoak umorez gozatzeko aukera izango du. Sarrera, 2,5 euro.

### Hernani Musika

**BITERI KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 23, 20:00etan**

Hernani'n Musik-en barruan, 'Faust' film mutuaren proiektzioa izango da. Musika "The Silent Band" taldeak joko du zuzenean.

**MILAGROSA KAPERAN**

**Larunbata 24, 11:30ean eta 17:00etan**  
Hernaniko VIII. Txistulari Gazteen Txapelketa izango da.

**KALEATAN ZEHAR**  
**Igandea 25**

Txistularien Topaketa ospatuko da.

### Usurbil Musika

**Ostiraletik igandera**

VIII. Soinurbil musika zikloa antolatuta da. De Mode Quartet, Donostia-Ereski abesbatza eta Garinoango Musika Bandak kontzertua eskainiko dute.

### Lasarte-Oria Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Igandea 25, 17:00etan**

Haurrentzako zinearen barruan, "Fucsia, la minibruja" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

### Musika

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 30, 19:00etan**

Lasarte Oria Musika atalaren barruan, "KantaJimJazz" taldearen kontzertua izango da.

### Ipuin-kontalaria

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteartea 27, 18:00etan**

Haur liburuaren eguna dela eta, Inguma taldeak "Bidaian" kontaketa eskainiko du. 5 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua dago.

### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Martxoan zehar**

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude, zerbitzariari galdetu.

### Bestelakoa

**XIRIMIRI ELKARTEA**  
**Ostirala 23, 17:00etan**

Gazte Martxako aurkezpena eta nafarroako azken gudaren inguruko mahai inguru dinamikoa egingo du Jalgi Hadi Garaipenera! dinamikak.

### Andoain Musika

**BASTERO KULTURGUNEA**  
**Ostirala 23, 21:30ean**

Ruper Ordorikak "Hodeien azpian" disko berria aurkeztuko du. Sarrera, 10 euro.

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da gaur martxoaren 23, arratsaldeko 17:00etan.

### Galdutako agenda

Poltsiko agenda bat galdu zen duela bi aste, Orbelako autobus geltokian. Aurkitzen duenak dei dezala, 639 220 506 zenbakira.

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan martxoaren 27ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazteaz da eta odol falta dago!

### Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, narxtoaren 30ean Lasarte-Oriako Herrira elkarteak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

### Iradokizunak edo kexak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizunak, kexak edo eskaerak egiteko orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbidera bidali behar da orrialdea.

### Hirigintzako departamentua Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

### Eskutitza

## M29: EUSKAL HERRIA KALERA!

Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean Espainiako Gobernuak lan erreforma bat inposatzea erabaki du. Lan erreforma honen bitartez, ikasleon, langileon, emakumeon, langabe-tuon...eskubideak bortizki murriztuko dira, urteetan zehar borrokatu eta lortu direnak, beti ere, krisia aitzakiatzat hartuz eta gizarte honen hobe beharrez izango dela azpimarratuz.

Baina adaketa hauek luzean gertatuko datoz. Patronalek merkeago kaleratzeko erraztasun gehiago izango dituzte, kontratazio prekarioagoak ezartzeko aukera, malgutasun handiagoa langilearekiko eta ez langilearentzat eta negoziazio kolektiboaren ahultzea besteak beste. Lan erreformak helburu bakarra du, patronalaren boterea handitu: kaleratzeko, soldata jais-teko eta hitzarmen kolektiboak ez betetzeko.

Honek, gizartearen zati handienarentzat sortuko duen testuinguru bakarra pobrezia handiagotzea, bizi kalitatea murriztea, pribatizazioak eta

gure eskubideak gradualki deuseztatzea izango da, gure etorkizuna beltzez margotuz.

Guk berriz, konponbide bakarra ikusten dugu inposaketa honen aurrean, burujabetza oinarri, demokrazia eta justizia soziala; euskal langileak izan behar baitu bere eskubideak eta etorkizuna erabakitzen dituen.

Beraz, Akelarre Gazte Kolektiboak eraso kapitalista honen aurrean hurrengo egunetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen du, bai martxoaren 23an Lasarten burutuko den manifestazioan eta baita martxoaren 29an egingo den greba orokorrean parte hartze aktiboaz izateare.

Eraso kapitalisten aurrean herria grebara!

Akelarre Gazte Kolektiboa

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 9 443 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

Alaitz Mendizabal Parte Hartze Batzordeko Burua

# “Argi daukat betiere herritarren alde egingo dudala lan”

Auzoz-auzoko bileren bigarren fasea datorren astean bukatuko da. Hortik jasotako lehentasunekin hasiko da lanean Alaitzek zuzentzen duen batzordea

*Dagoeneko auzoz-auzoko bileren bigarren fasea hasi du bere departamenduak. Lehen aldia da Lasarte-Oriako Udaletxean Parte-Hartze batzordea eratzeko delako eta oso pozik dago hilabete hauetan egindako lan guztiarekin. Alaitzek bere burua eroso ikusten du orain udal gobernuaren baitan eta itxaropentsu dago izan ere gobernatzeko beste modu bat posible dela egunez egun ikusten ari baita.*

Maider AZURMENDI

Alaitz Mendizabalek Parte-Hartze Batzorde berriaren ardura hartu zuen duela zortzi hilabete baino gehiago. Herritar gaztearentzat Udaletxean sartzeko aldaketa handia izan da. Arotza ogibidez, arazorik ez du tarteka bere trebezia Udaletxeko altzariekin erakusteko. Auzoz-auzoko bileren arrakastarekin oso pozik dago eta itxaropentsu azaldu zaigu nahiz eta aitortu hasiera ez zela erraza izan.

**Lehenik eta behin, zer moduz joan dira auzoz-auzoko lehen bilerak?**

Oso gustura geratu gara jendearen erantzunarekin, bai kopuru aldetik, baita jendearen jarrerarekin ere.

Parte-hartze dinamika berria izan da, pentsa herri honetan inoiz ez dela antzekorik egin. Hala ere, nahiz eta batzuei hasieran kosta egin zaien kontzeptu berri hau barnerratez, erabilitako metodologiarekin jendeak ondo erantzun du, talde txikitik jartzeko garaian batez ere, hitz egiten hasi orduko beldur guztiak kentzen zituizten eta gehiengoak bere eskaerak konpartitu izan ditu.

Denera 180 parte-hartzailetik gora izan dira zazpi bileretara gerturatu direnak eta 280 proposamen jaso dira orotara.

**Nolakoa izan da herritarrekin lehen harreman hori?**

Auzoetara joan gara gertutasun hori auzotarrei transmititzeko eta nik uste dut lortu dugula. Jendeak eskertu egin du udala auzoetara hurbildu izana eta dituzten eskaerak azaltzeko eman zaien aukera.

Nik pentsatzen dut informazioaren norabidea behetik gorakoa izan behar duela beti. Hau da, herritarrek Udaletxean zuzenean adierazi

behar dituzte herrian ikusten dituzten arazoak eta beharrak beraien baitira lehenengo pertsonan pairatzen dituztenak.

Bestetik, udalak ere bere aldetik herritarrek behar bezala informatu behar dituela iruditzen zait.

**Hurrengo urratsak zeintzuk izango dira?**

Auzoz-auzoko 2. fasea bukatzen dugunean herriko kirolan, kulturen, gazte jendearen artean...eta beste horrenbeste arlotan jarraitu nahi dugu lanean. Beraien proposamenak jasotzea ere garrantzitsua izango da eta horrela eremua osatuagoa geratuko dela iruditzen zait, aldi berean, diagnostiko zabalago bat edukiko dugula.

Proposamen hauen guzti en artean herritarrek aukeratu dituzte zeintzuk izango duten lehentasuna. Hauekin elkarlanean hasiko ginatke orduan udala eta interesatua dagoen herritar ororekin.

**Zein da zure helburua Parte Hartze batzorde berri honen burua izanda?**

Helburu garrantzitsua udalaren lan egiteko moduan behar hartzea txertatzea izango litzateke, bai udala beraren baitan, baita herri mailan ere.

Udala herritarrengana gerturatu behar da eta alderantziz, herritarra udalera. Herritarrek beraien iritzi eta ekarpenak kontutan hartzen ditugula sentitu behar dute. Bien arteko elkarlana egon behar duela iruditzen zait, hau da, bi norabideko komunikazioa ezinbestekoa da.

**Nola daramazu Udaletxeko lana? Gustura al zaude?**

Hasiera nahiko gogorra egin zitzaidan. Ikasten nengibilen eta goizean klasera joaten nintzen eta arratsaldean lanean. Honetaz gain, lan honetan esperientziarik ez nuen, dena



berria zen niretzat. Pixkanaka buruan geneuzkan proiektuak aurrera doazela ikusten duzunean eta herritarren erantzuna ona dela ikusten zoazen neurrian, gogotsu hartzen duzu lana eta horrek izugarriko indarra ematen dizu aurrera egiteko.

**Personalki, aberasgarria al da zu bezalako gazte batentzat ardura politiko hau hartzea?**

Udaletxean sartu berriren egin bazenit galdera hau ez dakit zer erantzungo nuen. Hala ere, momentu honetan zortzi bat hilabete pasa ondoren eta ikasi dudana guztia kontuan izanda, guztiz aberasgarria dela iruditzen zait.

**Oker ez banago arotza zara ogibidez, guztiz lan ezberdina da Udaletxekoa. Nola uztartzen dituzu?**

Zortzi urtez egin dut lan arotza bezala, fabrika itxi izan ez balute, agian han egongo nintzen baina bizitzak buelta asko ematen ditu eta orain oraingoa.

Hala ere, esan behar dut batzuetan Pablok (alkatea) eskatu izan didala Udaletxeko aulkiren bat konpontzeko eta gustura egin izan dut! Orain ere uste dut baduela “txapuzaren” bat niretzat prest.

Diozun bezala, lan oso ezberdinak dira baina biak dira interesgarriak. Zabiltzan

lanean gustura egotea da garrantzitsua eta horretan zure burua baloratua sentitzea.

**Zure eguneroko bizitza asko aldatu al da udal gobernuko parte zarenetik? Bizilagunek zuregan josten dute udalarekin izan ditzaketen arazoak komentatzeko?**

Egia esan asko aldatu da nire bizitza. Lehen lasaia bizi nintzen, denbora gehiago neukan niretzako eta buruari ez nizekin horrenbeste buelta ematen. Baina alde txarrak eta onak alderatuta, egungo lan honen alde onak gehiago direla iruditzen zait. Horien artean sartuko nuke herritarrekin harremana edukitzea eta esateko dutena entzutea.

Nahikoa irekia naizela iruditzen zait eta gustura sentitzen naiz jendearekin hitz egiten. Batzuetan loreak botatzen dizkizute eta beste batzuetan harriak baina beno, nik argi daukat betiere herritarren alde egingo dudala lan eta ezagutzen nautenek hori badakite.

**Zer da orain arte okerren daramazuna?**

Okerren egia esan, ordenagailuaren laguna ez naizela eta askotan haserretzen garela, eskerrek gero bakeak egiten ditugun, bestela...Niretzat hoberena da momentu hone-

tan herritarrek konturatu direla gauzak beste modu batean egin daitezkeela.

**Udaletxe barrutik herria desberdin ikusten al da?**

Ezberdina da udalaren barruan egon edo kanpotik ikustea. Biak probatu ditut eta kanpotik oso ezberdin ikusten dira gauzak. Barruan zaude udalaren funtzionamendua konplexuagoa dela ikusten duzu eta azkar egin nahi dituzun gauzek bere denbora behar dutela. Horretaz ohartzen zara batez ere. Ez da lan erraza. Kontrakoa dionari, hilabete batean probatzeko esango nioke.

**Bigarren bilera sorta hasita dago, zer esango zenieke herritarrei hauetan parte hartzeko?**

Bigarren fasea aste honetan hasi dugu eta esan garrantzitsua dela bigarren bilera hauetara gerturatzea. Izan ere, hauetan ezarriko dira aurreko bileretako proposamenen arteko lehentasunak eta udala lehentasun hauekin hasiko da lanean.

Herritar guztiei gonbitea luzatzen diet hauetara hurbil daitezten eta iritzia eman dezatela. Orain arte gauzak egiteko moduarekin ados ez bazeuden, orain delako momentua beste modu batean lanean hasteko.